**LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA**

**652**

25/1993 DEKRETUA, otsailaren 9koa, Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarrerari buruzko maiatzaren 3ko 2/1990 Legea garatzen duena.

Autonomi Elakartean gizarte-elkartasun egitarau bat planteiatu beharrak bultzatu zuen Eusko Jaurlaritza 1989an Pobreziaren Aurkako Osoko Plana prestatu eta martxan jartzera.

Horrekin bi gauza nabarmendu nahi ziren; alde batetik, pobrezia, mendebaldeko herrialde aurreratu guztiek duten arazoa izanik, ez dela gizarte-sorospidetzako ohizko politikak ezarriz baztertzerik lortu, eta bestetik, beste politika sozial batzuez baliatu beharra zegoela, arazo larri horri beste ikuspegi errealistago batetik aurre egiteko.

Pobreziaren Aurkako Osoko Planaren lehenengo mailan, maiatzaren 3ko 2/1990 Legeak Gizarteratzeko Gutxienezko Dirusarrera eratu zuen Euskal Autonomi Elkarterako, zeina Pobreziaren Aurkako Osoko Plana osatzen duten neurrien ardatz nagusi baita.

Aurrekontuen Legeak Gizarteratzeko Gutxienezko dirusarrerari buruzko 2/1990 Legearen indarraldia luzatzea ohartematen duenez, lege hori bera garatzeko ere araudi bat prestatu beharra dago.

Guzti horren ondorioz, Lan eta Gizarte Segurantza Sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1993ko otsailaren 9an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

I. ATALBURUA

XEDAPEN OROKORRAK

*1. atala.*– Maiatzaren 3ko 2/1990 Legeak eratu duen Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarreraren ezarpena, Legean bertan, Arautegi honetan eta bera garatzeko emango diren xedapenetan xedatutakoaren arabera burutuko da.

*2. atala.*– 1.– Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarrera hori diruz osatzen den gizarte laguntza lez egituratzen da eta bizitzako oinarrizko premiei aurre egiteko beharrezko baliabide ekonomikorik ez duten pertsonak gizarteratu ahal izateko bideratzen da.

2.– Dirusarrera hau besterik ezean ematen dena da eta indarrean dagoen legedian ohartemandako beste edozein baliabide eta/edo gizartearen diruzko laguntzen osagarri, horrela denean; Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarrera lortu baino lehen oso-osorik azaldu beharko dira beste laguntza horiek.

3.– Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarrera janaritarako ematen da eta eskualdatu ezinekoa da; beraz, ezingo da hortik bahitu edo atxiki, ezargarri den Estatuko legedi orokorrean ezarritako kopururik, ez eta zor-agirien bermetzat eskaini (Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarrerari buruzko Legearen 2. atala.).

**DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL**

**652**

DECRETO 25/1993, de 9 de febrero, de desarrollo de la Ley 2/1990, de 3 de mayo, de Ingreso Mínimo de Inserción.

La necesidad de plantear un programa de cohesión social en la Comunidad Autónoma llevó al Gobierno Vasco a la elaboración y puesta en marcha en el año 1989 del Plan Integral de Lucha contra la Pobreza.

Con ello se quería destacar que el problema de la pobreza, fenómeno común a las sociedades occidentales desarrolladas, no ha conseguido eliminarse mediante la aplicación de las medidas tradicionales de asistencia social, y que resultaba obligado por ello la adopción de políticas sociales distintas que afrontasen este grave problema con una perspectiva más realista.

Dentro del primer nivel del Plan Integral de Lucha contra la Pobreza, la Ley 2/1990 de 3 de mayo, instituyó a nivel de la Comunidad Autónoma del País Vasco el Ingreso Mínimo de Inserción, que constituye la medida vertebral de las que integran el mencionado Plan.

Prevista la prórroga de la vigencia de la Ley 2/1990 de Ingreso Mínimo de Inserción por la Ley de Presupuestos procede elaborar asimismo la normativa de desarrollo prevista en la misma.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Trabajo y Seguridad Social, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión de 9 de febrero de 1993,

DISPONGO:

CAPITULO I

DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.*– La aplicación del Ingreso Mínimo de Inserción instituido por la Ley 2/1990 de 3 de mayo, se llevará a efecto conforme a lo dispuesto en la misma, en el presente Reglamento y en las disposiciones que se dicten en su desarrollo.

*Artículo 2.*– 1.– El Ingreso Mínimo de Inserción está configurado como una prestación social de contenido económico, dirigida a la integración social de aquellas personas que carezcan de los recursos económicos necesarios para atender a las necesidades básicas de la vida.

2.– Tiene carácter subsidiario y, en su caso, complementario de todo tipo de recursos y/o prestaciones sociales de contenido económico, previstas en la legislación vigente, las cuales deberán hacerse valer íntegramente con carácter previo al acceso al Ingreso Mínimo de Inserción.

3.– El Ingreso Mínimo de Inserción se otorga con carácter alimenticio e intransferible, no pudiendo, por tanto, ser objeto de embargo o retención, en las cuantías establecidas en la legislación general del Estado que sea de aplicación, ni ofrecerse en garantía de obligaciones. (Artículo 2 de la Ley del Ingreso Mínimo de Inserción).

II. ATALBURUA

ONURADUNAK, BEHARKIZUNAK ETA BETEBEHARRAK

*3. atala.–* Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarreraren onuradun izan daitezke, Legean eta Arautegi honetan ohartemandako baldintzapean, honako beharkizunak betetzen dituzten pertsonak:

a) Eskabidea aurkezteko eguna baino urtebete lehenago gutxienez, familia propioa osatuta izatea. Epe hori bete beharrik ez dute izango, beren kontura adinez ttikiak direnak edo ahalurriko legez sailkatutako pertsonak dituztenek (Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarrerari buruzko Legearen 3.a) atala).

Ondorio horietarako, pertsona horiek onuradunarekin bizi direnean, orduan ulertuko da bere pentzutan bizi direla.

b) Eskaera aurkeztu baino hiru urte gutxienez lehenagotik, Euskal Autonomi Elkarteko lurraldea osatzen duten edozein Udaletan bertako biztanle lez erroldan sartuta egotea (Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarrerari buruzko Legearen 3.b) atala.).

Epe hori ulertzeko, Euskal Autonomi Elkarteko edozein udaletan egindako errolda guztiak bildu ahal izango dira, elkarren jarraikoak izan baldin badira.

c) Bakoitzari dagokion Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarrera baino kopuru ttikiagoko eskuarteak izatea, beti ere hurrengo ataletan agintzen dena betez.

d) Eskatzaileak 25 urte eginda izan behar ditu eta zahartzaroko pentsio publikoa jasotzeko eskubidea izateko eskatzen den gutxieneko adina ezingo du gainditu (Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarrerari buruzko Legearen 3.c) atala).

Halere, 25 urtetik beherakoak ere onuradun izan daitezke, beste beharkizun guztiak bete eta beren pentzutan adinez ttikiak direnak edo ahalurriko legez sailkatutako pertsonak badituzte, atal honetako a) idazatian ezarritako moduan.

*4. atala.–* Arautegi honen ondorioetarako, familia propioa honela ulertuko da: pertsona bakar baten egoitza iraunkorreko eremu fisikoa edo, horrela bada, bi lagun edo gehiagorena, ezkontzaz edo ezkontzaren antzeko beste edozein harreman iraunkorrez elkartuta badaude, baita umeorde lez, odolkidetasunez eta ezkontzahaidetasunez ere, 4. eta 2. mailaraino hurrenezhurren. Aurreko difiniziotik kanpo gelditzen dira adizkidetasunez edo komeni zaielako elkarrekin bizi direnen kasuak (Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarrerari buruzko Legearen 4. atala).

*5. atala.–* 1.– Maiatzaren 3ko 2/1990 Legearen ondorioetarako, familia propioaren eremu fisiko lez honako hauek hartuko dira:

a) Hotelen antzera ostatudun diren establezimenduak.

b) Harrerako zentru publikoak, edo irabazte xederik ez duten erakunde pribatuen menpekoak, behar bestean egiaztatu baditu Administrazioak.

c) Etxe partikularrak, bertan ostatua hartuta izan eta diruz ordaintzen baldin bada.

d) Etxe partikularrak, nahiz eta, premia gorrian daudelako, aurreko puntuan aipatutako diru ordainketarik egiten ez den, eta egoera hori egiaztatu ahal baldin bada.

CAPITULO II

BENEFICIARIOS, REQUISITOS Y OBLIGACIONES

*Artículo 3.–* Podrán ser beneficiarios del Ingreso Mínimo de Inserción, en las condiciones previstas en la Ley y en el presente Reglamento, aquellas personas que reúnan los siguientes requisitos:

a) Constituir un hogar independiente, como mínimo con un año de antelación a la fecha de presentación de la solicitud. Quedan exceptuados de cumplir este plazo quienes tengan a su cargo menores de edad o personas con calificación de minusvalía (Artículo 3.a) de la Ley del Ingreso Mínimo de Inserción).

A estos efectos, se entenderá que dichas personas están a su cargo cuando convivan con el beneficiario.

b) Estar empadronado como residente, al menos con tres años de antelación a la fecha de presentación de la solicitud, en cualquiera de los Municipios integrados en el Territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco (Artículo 3.b) de la Ley del Ingreso Mínimo de Inserción).

A los efectos de dicho plazo, podrán computarse los períodos de empadronamiento en distintos municipios de la Comunidad Autónoma, siempre que los mismos sean sucesivos.

c) Disponer de unos recursos inferiores a la cuantía del Ingreso Mínimo de Inserción correspondiente, en los términos de los artículos siguientes.

d) Tener cumplidos 25 años y no sobrepasar la edad mínima exigida para tener derecho a una pensión pública por ancianidad (Artículo 3.c) de la Ley del Ingreso Mínimo de Inserción).

No obstante, podrán ser beneficiarios los menores de 25 años que, reuniendo el resto de los requisitos, tengan a su cargo menores o personas con calificación de minusvalía en los términos establecidos en el apartado a) del presente artículo.

*Artículo 4.–* A los efectos del presente Reglamento tendrá la consideración de hogar independiente el marco físico de residencia permanente de una sola persona o, en su caso, de dos o más, unidas por matrimonio u otra forma de relación permanente, análoga a la conyugal, por adopción, consanguinidad y afinidad, hasta 4.º y 2.º grado respectivamente. Queda excluida de la anterior definición la convivencia por razones de amistad o conveniencia (Artículo 4 de la Ley del Ingreso Mínimo de Inserción).

*Artículo 5.–* 1.– A los efectos de la Ley 2/1990 de 3 de mayo, se consideran marcos físicos de residencia colectiva los siguientes:

a) Establecimientos de alojamiento hotelero.

b) Centros de acogida públicos, o dependientes de entidades privadas sin ánimo de lucro debidamente acreditados por la Administración.

c) Casas particulares en régimen de pensión, siempre que medie contraprestación económica.

d) Casas particulares en las que no medie la contraprestación anterior debido a situaciones constatables de extrema necesidad.

2.– Aurreko lerroaldiko a), b) eta c) idazatietan finkatutako kasuetan, 4. atalean ohartemandako moduan elkarrekin bizi diren unitate bakoitzak familia propio bat osatzen duela ulertu behar da.

3.– Lehenengo lerroaldiko d) idazatian ohartemandako kasuetan, eremu fisikoan bizi diren lagun guztiek familia propioa osatzen dutela ulertu beharko da.

*6. atala.*– Bai Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarreraren kopurua eta bai Legean eta Arautegi honetan ezarritako moduan ulertzen diren eskuarte guztiak zehazteko, aurreko atalaren lehenengo lerroaldiko a), b) eta c) idazatietan finkatutako elkarrekingo egoitzen kasuan, elkarrekin bizi direnen unitate bakoitzeko lagunak hartuko dira kontuan. Atal horretako d) kasuan, familia propioa osa dezaten kide guztiak hartuko dira kontuan.

*7. atala.*– Familia propio berean onuradun izan daitezkeen lagun bat baino gehiago badaude, horietariko bati baino ezingo zaio eman Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarrera. Kasu horretan, lehenengo eskatu duenari izendatuko zaio dirusarrera.

*8. atala.*– Onuradunen betebeharrrak hauek dira:

1) Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarrera hori eman den helbururako erabiliko dute (Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarrerari buruzko Legearen 5.1 atala).

2) Idatziz aginduko dute, Arautegi honetan xedatutakoaren arabera bere garaian zehaztu daitezen ordainezko zerbitzuak beteko dituztela.

3) Maiatzaren 3ko 2/1990 Legean edo Arautegi honetan xedatutakoaren arabera Dirusarrera aldatu, eten edo iraungi dezaketen gertakizun berriak jakinaraziko dituzte gehienez hamabost eguneko epean (Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarrerari buruzko Legearen 5.3 atala).

4) Jaso behar ez ziren kopuruak itzuli egingo dituzte, baita behin-behinean emandakoak ere, horrela izan bada.

5) Ezingo dira eskean ibili.

6) Enplegu egoki baterako eskaintzarik ezingo dute baztertu; arauterian ohartemandako moduan ulertu beharko da enplegu hori.

7) Zuhur jokatu beharko dute, premiako egoera hori eta Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarreraren xede eta helburu diren beste egoera guztiak larritu ez daitezen.

III. ATALBURUA

EKONOMIA ERREGIMENA

*9. atala.*– Familia bakoitzari ezarri ahal izango zaion Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarreraren hileko kopurua zenbat izango den ateratzeko, lagun bakarreko familientzako Euskal Autonomi Elkarteko Aurrekontu Orokorren Legean urtero finkatzen den kopuruari, Lege berean finkatzen diren osagarriak gehituko zaizkio; onuradunarekin batera bizi den lagun bakoitzeko izendatutako osagarriak, alegia, familian beste lagunik baldin badago.

Esandako kopurua oso-osoan emango da, onuradunak inolako beste dirusarrerarik edo eskuarterik ez badu. Bestelakoetan, onuradunak dituen eskuarteak

2.– En los supuestos establecidos en los apartados a), b) y c) del párrafo anterior, se entenderá que cada una de las unidades convivenciales previstas en el artículo 4 constituyen hogar independiente.

3.– En el caso previsto en el apartado d) del párrafo primero, se considerará que constituyen hogar independiente, el conjunto de personas que convivan en el marco físico.

*Artículo 6.*– Para determinar tanto, la cuantía del Ingreso Mínimo de Inserción, como el conjunto de recursos en los términos establecidos en la Ley y en el presente Reglamento, se tendrán en cuenta en las residencias colectivas establecidas en los apartados a), b) y c) del apartado primero del artículo anterior, a las personas que integran cada unidad convivencial. En el supuesto d) de dicho artículo se computarán el conjunto de todos los miembros que constituyan el hogar independiente.

*Artículo 7.*– En el supuesto que en un mismo hogar independiente existieran varias personas que pudieran ostentar la condición de beneficiario, sólo podrá otorgarse el Ingreso Mínimo de Inserción a una de ellas. En dicho caso, el otorgamiento de la prestación recaerá sobre aquella que lo haya solicitado en primer lugar.

*Artículo 8.*– Son obligaciones de los beneficiarios:

1) Aplicar el Ingreso Mínimo de Inserción a la finalidad para la que se ha otorgado (Articulo 5.1 de la Ley del Ingreso Mínimo de Inserción).

2) Prestar por escrito su compromiso para realizar aquellas contraprestaciones de las que en su caso se determinen de conformidad con lo dispuesto en el presente Reglamento.

3) Comunicar en el plazo máximo de quince días los hechos sobrevenidos que, de conformidad con lo dispuesto en la Ley 2/1990 de 3 de mayo o en el presente Reglamento, pueden dar lugar a la modificación, suspensión o extinción del Ingreso (Articulo 5.3 de la Ley del Ingreso Mínimo de Inserción).

4) Reintegrar las cuantías indebidamente percibidas y las que correspondan en su caso, en los supuestos de concesión provisional.

5) No ejercer la mendicidad.

6) No rechazar una oferta de empleo adecuado, entendido éste en los términos previstos en la normativa correspondiente.

7) Actuar diligentemente, con el fin de impedir el agravamiento de la situación de necesidad y cuantas aquellas otras se deriven del objeto y finalidad del Ingreso Mínimo de Inserción.

CAPITULO III

REGIMEN ECONOMICO

*Artículo 9.*– La cuantía mensual del Ingreso Mínimo de Inserción aplicable a cada hogar, será el resultado de añadir a la fijada anualmente en la Ley de Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma para los hogares unipersonales, los complementos, también fijados por dicha Ley, por cada miembro de más que conviva con el beneficiario, si los hubiese.

Dicha cuantía se otorgará en su integridad en el supuesto de que el beneficiario carezca absolutamente de todo tipo de ingresos o recursos. En caso contrario, se

kendu egingo dira kopuru horretatik, 10. atalean xedatutakoaren arabera zenbatuta; kenketatik atera dadin kopurua izango da Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarrera lez ordainduko dena.

*10. atala.*– 1.– Eskuarteak zehazterakoan, eskabidea aurkezteko garaian, familia osatzen duten kide guztiek lortzen dituzten dirusarreren batuketa eginez zenbatutako dira, direla irabaziak, ordainketak, pentsioak edo beste edozein titulupekoak; horrek ez du kentzen Norbanakoen Urteko Irabazien Zergaren aitorpena egin beharrik.

2.– Bai inoren kontura lan egiten dutenen irabaziak, zein merkaritza eta profesional ihardueretatik edo nekazalabelzaintza ustiaketetik lortzen direnak zehazteko, gizarte segurantzari derrigorrez ordaindu behar zaizkion ehuneko batzuk gutxituko dira dirusarrera gordinetatik. Halaber, eskabidea egiten duenaren dirusarreretatik, eta bere kasuan bakarrik, horien ehuneko bat gutxituko da, irabaziak lortzeko beharrezko gastutzat hartuko baita. Arautegi hau garatuko duten xedapenen arabera finkatuko dira esandako ehuneko horiek.

3.– Familiaren ondarea baliostatzeko erizpideak ezarriko dira esandako xedapen horietan; ondare lez ulertuko dira, legezko jabetza, edukitze edo usufruktu tituluz izan daitezen ondasun higikor edo higikaitz guztiak. Familiaren ondasunen artean ohizko egoitza legez erabiltzen den etxebizitza jabetza tituluz dutena bada, hori baliostatzeko sistema bat ezarriko da eta etxebizitzaren balioa eskuarte guztien multzotik kanpora utzi ahal izango da, bere balioa zenbateko zehatz batzuetatik gorakoa ez denean, katastroko balioen arabera.

Balioespenetik kanpo utziko dira, halaber, familiako deusak, horien artean, ohiz kanpoko baliodunak izanik, baliabide ekonomiko nahikoak adierazten dituztenak eta erraz saltzeko modukoak daudenean izan ezik.

Motordun ibilgailuei balioa emateko, merkatuko prezioak izango dira kontuan; halere, zenbait ibilgailu balio gabe utziko dira beren indar fiskalagatik, edo aintzinatasuna edo egoeragatik zahar utziak eta azken baliorik gabekoak direlako.

Dena dela, gutxieneko ondare bat finkatuko da; hortik behera, eskuarterik ez dagoela uste izango da.

4.– Eskuarteen zenbaketatik kanpo utzi ahal izango dira helburu jakin batzuk dituzten kopuru batzuk: hala nola, hezkuntza, lanbide heziketa eta gizarte laguntzetarako direnak. Gaisotasunak eragindako gastuak ere irabazien kopuru osotik kendu ahal izango dira, horrelakorik gertatu bada, baina arautegi honen garapenerako xedapenetan finkatu daitezen baldintzak bete behar dira.

*11. atala.*– Eskabidea egiten duenak Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarrera emateko beharretsitako beharkizun guztiak betetzen baditu, eskabidea aurkeztutako hurrengo hilaren lehenengo egunetik ordainduko da Dirusarrera hori (Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarrerari buruzko Legearen 9. atala).

*12. atala.*– 1.– Bakoitzaren Foru Aldundiak ordainduko du laguntza hori, hila bukatu eta gero, ordaintzeko lehenengo egunetik aurrera, eta gehienez hamabi hilabeterako izango da.

2.– Onuraduna hiltzen bada, hil osoa ordainduko zaie familia propioko kide biziei.

restará de dicha cuantía, los recursos de que disponga, computados según lo dispuesto en el articulo 10, procediéndose al abono del Ingreso Mínimo de Inserción en la cantidad resultante de la diferencia.

*Artículo 10.*– 1.– Para la determinación de los recursos se computará la suma de los ingresos obtenidos por todos los miembros que constituyan el hogar, en concepto de rentas, retribuciones, pensiones, o por cualquier otro título, en el momento de presentación de la solicitud, con independencia de su obligación de declarar por el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

2.– Los rendimientos de trabajo tanto por cuenta ajena, como debidos a actividades comerciales y profesionales o procedentes de explotaciones agropecuarias se determinarán deduciendo de los ingresos brutos determinados porcentajes de las cotizaciones sociales obligatorias, así como exclusivamente para los ingresos del solicitante un porcentaje de los mismos que tendrá la consideración de gasto necesario para la obtención del rendimiento. Dichos porcentajes se establecerán conforme a las disposiciones de desarrollo del presente Reglamento.

3.– En dichas disposiciones se establecerán los criterios de valoración del patrimonio del hogar, entendiéndose éste como el conjunto de bienes muebles e inmuebles, sobre los que se ostente un título jurídico de propiedad, posesión o usufructo. En el supuesto de existencia en el hogar de una vivienda habitual en propiedad, se establecerá un sistema de valoración, en el cual podrá excluirse del cómputo de recursos el valor de la misma, cuando éste no exceda de determinados importes, según valor catastral.

Asimismo, podrá excluirse de la valoración el ajuar familiar, salvo que en el mismo existan bienes que, excepcionalmente por su valor denoten existencia de medios económicos y sean de fácil realización.

En la valoración de los vehículos a motor se atenderá a los precios de mercado, si bien podrán excluirse del cómputo ciertos vehículos en razón de su potencia fiscal, o por cuya antiguedad o estado estén totalmente obsoletos y sin valor residual.

En todo caso, se fijará un patrimonio mínimo por debajo del cual se presumirá la inexistencia de recursos.

4.– Podrán excluirse del computo de recursos ciertas cantidades de carácter finalista destinadas a la educación, formación profesional, y ayudas sociales. En su caso, podrán deducirse del total de la renta los gastos ocasionados por enfermedad en las condiciones que se fijen en las disposiciones de desarrollo del presente Reglamento.

*Artículo 11.*– Si el solicitante reúne todos los requisitos exigidos para la concesión del Ingreso Mínimo de Inserción, se devengará éste a partir del primer día del mes siguiente a la presentación de la solicitud (Artículo 9 de la Ley del Ingreso Mínimo de Inserción).

*Artículo 12.*– 1.– El pago de esta prestación, se efectuará, por la respectiva Diputación Foral, por mensualidades vencidas a partir de la fecha del devengo de la misma, y con un máximo de doce.

2.– En el caso de fallecimiento del beneficiario se pagará el mes completo a aquellos miembros del hogar independiente que le sobrevivan.

IV. ATALBURUA

LAGUNTZAREN ERREGIMENA

*13. atala.*– Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarrera emateko egon diren arrazoiak dirauteno ordainduko zaio hori onuradunari. Aurrekoan esandakoaren kaltetan izan gabe, hasiera baten laguntzaren emakidak gehienez urtebete iraungo du, amaitzen denean berritu daitekelarik.

*14. atala.*– 1.– Emakidaren erabakian ezarritako epea bukatu aurretik, Udalek, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen bidez, ebaluazio txosten bat jasoko diote bakoitzaren Foru Aldundiari, lortu den gizarteratzeko maila azalduz. Besteak beste honakoak jasoko dira: ea bakoitzarentzat gizarteratze planean ohartemandako ihardunerak nola bete diren eta zelako probetxua izan duten, dirusarrerak duen helburua, elikatzeko izanik, egoki erabili izan den eta, orokorrean, Legean, Arautegi honetan eta, horrela bada, emakidaren erabakian azaldutako beste betebeharrak ere ea bete diren.

2.– Txosten horretan jasoko da, edo Dirusarrerarekin jarraitzea komeni dela, batetik, horren kopurua eta zenbat denborarako izango den eta, horrela bada, ordainezko zerbitzuetarako plan berri bat zehaztuz, edo bestetik, alderantziz, gizarteratzeko helburua lortu delako edo doakionak bere gain dituen betebeharren bat bete ez duelako, horrekin jarraitzea bidegabekoa dela; kasu horretan, berari dagokion iraungipen prozedurari hasiera emango zaio.

3.– Era baterako edo besterako erabaki adierazirik ematen ez den bitartean, laguntza hori isilbidez berriztatu dela ulertuko da, kasu horretan gehienez hiru hileko ordainduko direlarik.

*15. atala.*– 1.– Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarreraren kalkulua egiteko oinarri legez erabili izan diren familiako kideen kopurua edo eskuarte ekonomikoak aldatzen badira, dirusarrera hori gutxitu edo gehitu egin ahal izango da (Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarrerari buruzko Legearen 10. atala).

2.– Atal honen ondorioetarako, ezingo da ulertu familiako kideen kopurua gutxitu denik, horietariko norbaitek hilabete baino denboraldi ttikiagoetarako alde egiten duenean edo ikasketa ofizialak egiteko, sasoiko lanak egiteko, derrigorrezko soldaduzka edo horren ordezko zerbitzu zibila betetzeko gertatzen denean.

3.– Bakoitzaren Udalak hasiko du espedientea bai ofizioz, bai Foru Aldundiak edo doakionak eskatuta.

*16. atala.*– Emakida agintzeko orduan kontuan izan diren eskuarte ekonomikoek, denboraldi batez, izendatu den Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarreraren hileko kopurua gainditzen dutenean, utzi egingo zaio hori ordaintzerari eta, egoera hori eragin duten inguruabarrak galtzen direnean, berriro hasiko da ordaintzen doakionak horrela eskatuta, berriz hasteko eskabidea egiten denean egon daitezen eskuarte ekonomikoak kontuan hartuko direlarik.

*17. atala.*– 1.– Ordainketa eteteko arrazoi izango da, emakidarako ezarritako ordainezko zerbitzuak betetzeko ezintasuna etortzen bazaio onuradunari, bai hurrengo idazatian ohartemandako zentruetan sartu delako, zein legeak ezgaitua dela deklaratuz esandako agintzak

CAPITULO IV

REGIMEN DE LA PRESTACION

*Artículo 13.*– El Ingreso Mínimo de Inserción, se otorgará al beneficiario mientras subsistan las causas que motivaron su concesión. Sin perjuicio de lo anterior, la concesión de la prestación tendrá inicialmente la duración máxima de un año pudiendo renovarse a su finalización.

*Artículo 14.*– 1.– Con carácter previo a la finalización del período establecido en la resolución de concesión, los Ayuntamientos a través de los Servicios Sociales de Base, elevarán a la Diputación Foral correspondiente un informe evaluativo del grado de inserción alcanzado, que deberá contener, entre otros, los aspectos relativos al cumplimiento y aprovechamiento de las actividades previstas en el plan de inserción individual, el adecuado empleo del ingreso en la finalidad alimenticia a la que va destinado, y en general del cumplimiento de aquellas otras obligaciones contempladas en la Ley, en el presente Reglamento, y en su caso, en la resolución de concesión.

2.– Dicho informe incluirá, bien una propuesta sobre la procedencia del mantenimiento del ingreso, cuantía y periodificación del mismo, y en su caso, un nuevo plan de contraprestaciones, o por el contrario, la improcedencia de su mantenimiento al haber conseguido el objetivo de inserción o por el incumplimiento de alguna de las obligaciones a las que esté sujeto el interesado, que dará lugar, en este caso, a la iniciación del correspondiente procedimiento de extinción.

3.– En tanto en cuanto no recaiga resolución expresa en uno u otro sentido, se entenderá renovada tácitamente la prestación, pero limitándose esa circunstancia a un máximo de tres mensualidades.

*Artículo 15.*– 1.– La modificación sobrevenida, del número de miembros del hogar o de los recursos económicos que hayan servido de base para el cálculo del Ingreso Mínimo de Inserción, podrá dar lugar a la minoración o aumento del mismo (Artículo 10 de la Ley del Ingreso Mínimo de Inserción).

2.– A los efectos del presente artículo, no se entenderá que hay minoración del numero de miembros del hogar cuando la ausencia de alguno de ellos se produzca por períodos inferiores a un mes o esté motivada por razones de estudios oficiales, trabajos de carácter estacional, servicio militar obligatorio o prestación civil sustitutoria.

3.– El Ayuntamiento correspondiente iniciará el expediente bien de oficio, bien a instancia de la Diputación Foral o del interesado.

*Artículo 16.*– Cuando los recursos económicos que se hayan tenido en cuenta en el momento de la concesión, superen con carácter temporal la cuantía mensual del Ingreso Mínimo de Inserción asignado, se suspenderá el abono del mismo, reanudándose a instancia del interesado cuando decaigan las circunstancias que lo motivaron, y teniendo en cuenta los recursos económicos existentes al solicitarse dicha reanudación.

*Artículo 17.*– 1.– Será causa de suspensión del pago, la imposibilidad sobrevenida por parte del beneficiario de realizar las contraprestaciones establecidas para la concesión, bien por su ingreso en los centros previstos en el párrafo siguiente, bien cuando declarado legal-

betetzeko eragozpenak baditu, edo onuradunari egotzi ezin zaion beste edozein arrazoi bitarteko bada.

2.– Onuradunari ezintasuna etorri zaiola ulertuko da, hilabetekoak baino epe luzeagoetarako sartzen bada eritegi publiko edo pribatuetan, zein gartzelan bada.

*18. atala*.– 1.– Aurreko atalean ohartemandako kasuren baten sartuta balego onuraduna eta 4. atalean zehaztuta datorren moduan anitz laguneko familia propioko partaide izango balitz, iharduteko lege gaitasuna duen beste kideren bati edo, adinez ttikiak edo ezgaituak direnen kasuan, babesa edo ordezkaritza legez dagokion pertsonari laguntza emateko akordioa hartu ahal izango litzateke, familia horrek dituen familiako erantzukizunak eta egoera ekonomikoa kontuan izanik.

2.– Aurreko idazatiko baldintzetan laguntza emateko akordiorik hartzen bada, familia osatzen duten kideen kopurutik bat gutxituz eta 9. atalean ohartemandako arau orokorrak ezarriz kalkulatuko da dagokion laguntza.

3.– Bigarren idazatian ohartemandakoak ez du ekarriko dirusarreraren titularra ofizioz aldatzerik, ez behintzat, gerora, era sinesgarriz egiaztatzen ez bada etenaldia sorarazi zuten arrazoiak baztertu ezinekoak direla, hurrengo atalean horiek iraungitzeko finkatutako denboran ezin badira kendu. Esandako kasu horretan, laguntzaren titularitatea dirusarrera jasotzen duen pertsonaren alde aldarrikatu ahal izango da, Legean eta Arautegi honetan emakidarako ezarritako beharkizunak betetzen baditu.

*19. atala*.– Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarrera honelako kasuetan iraungiko da:

a) Dirusarrera izendatzeko beharresten diren beharkizunen bat galtzen denean (Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarrerari buruzko Legearen 12.a) atala).

b) Onuraduna hiltzen denean (Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarrerari buruzko Legearen 12.b) atala).

c) Onuradunari egotzi dakiokeen arrazoiren bat dela medio, 8. atalean ohartemandako edozein betebehar edo onuradunak bere gain hartutako konpromezuak ez betetzearren (Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarrerari buruzko Legearen 12.c) atala).

d) 17. ataleko lehenengo idazatian aipatzen den baitezpadako etenaldia sorarazi duten arrazoiak urte t'erdi baino gehiago iraun dezatenean (Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarrerari buruzko Legearen 12.d) atala).

e) Irabazien aitorpenean faltsukeria egitean, edo Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarrera lortzeko edo hori ez galtzeko egin dadin beste edozein iruzurrezko ekintza burutzean (Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarrerari buruzko Legearen 12.e) atala).

Kasu horretan, behar ez den moduan jasotako kopuruak itzultzeko akordioa hartuko da, 30. atalean xedatutakoarekin bat etorriz (Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarrerari buruzko Legearen 12.e) atala).

f) Euskal Autonomi Elkarteko lurraldetik kanpo kokatuta dagoen Udalen batera egoitza aldatzen denean (Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarrerari buruzko Legearen 12.f) atala).

*20. atala*.– 1.– Aurreko ataleko e) idazatian xedatutakoaren ondorioetarako, irabazien iturriak ezkutatzeak, nahiz horiek inoren kontura lan egitetik, pentsio

mente incapacitado se vea impedido para cumplir dichos compromisos, o bien por cualquier otra causa no imputable al beneficiario.

2.– Se entenderá como supuesto de imposibilidad sobrevenida, el ingreso del beneficiario por períodos superiores a un mes en centros sanitarios públicos o privados, o de carácter penitenciario.

*Artículo 18*.– 1.– Si el beneficiario incurso en uno de los casos previstos en el articulo anterior formara parte de un hogar independiente pluripersonal tal y como viene definido en el articulo 4, se podrá acordar el abono de la prestación a algún otro miembro del hogar con capacidad jurídica de obrar, o persona a la que legalmente corresponda la tutela o representación si de menores o incapacitados se tratara, atendiendo a las cargas familiares y a la situación económica en la que hubiera quedado el mencionado hogar.

2.– Si se acordara el abono de la prestación en los términos previstos en el párrafo anterior, el importe correspondiente se calculará minorando en uno el número de miembros que constituyen el hogar, y aplicando las reglas generales previstas en el articulo 9.

3.– Lo previsto en el párrafo segundo no implicará una modificación de oficio del titular del ingreso, salvo que, con posterioridad, se constate de forma fehaciente que las causas que dieron lugar a la suspensión no son removibles en el período de tiempo fijado para su extinción en el artículo siguiente. En dicho supuesto, la titularidad de la prestación podrá reconocerse a favor de la persona que viniere percibiendo el ingreso, si reúne los requisitos establecidos en la Ley y el presente Reglamento para su concesión.

*Artículo 19*.– El Ingreso Mínimo de Inserción se extinguirá por:

a) Pérdida de alguno de los requisitos exigidos para su reconocimiento (Artículo 12.a) de la Ley del Ingreso Mínimo de Inserción).

b) Fallecimiento del beneficiario (Artículo 12.b) de la Ley del Ingreso Mínimo de Inserción).

c) Incumplimiento de cualquiera de las obligaciones previstas en el artículo 8, por causa imputable al beneficiario, así como de los compromisos asumidos por éste (Artículo 12.c) de la Ley del Ingreso Mínimo de Inserción).

d) El mantenimiento de las causas que dieron lugar a la suspensión cautelar contemplada en el párrafo primero del articulo 17 por tiempo superior a año y medio (Artículo 12.d) de la Ley del Ingreso Mínimo de Inserción).

e) El falseamiento en la declaración de ingresos, o cualquier otra actuación fraudulenta dirigida a obtener o conservar el Ingreso Mínimo de Inserción (Artículo 12.e) de la Ley del Ingreso Mínimo de Inserción).

En este supuesto, se acordará la reversión de las cantidades indebidamente percibidas de conformidad con lo dispuesto en el articulo 30 (Artículo 12.e) de la Ley del Ingreso Mínimo de Inserción).

f) Trasladar la residencia a un Municipio ubicado fuera del ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco (Artículo 12.f) de la Ley del Ingreso Mínimo de Inserción).

*Artículo 20*.– 1.– A los efectos de lo dispuesto en el apartado e) del artículo anterior la ocultación de fuentes de renta, tanto si consisten en trabajo por cuenta

bidez edo lanbide liberalak egin edo nekazal-abelazkuntza, industria edo merkataritzako ustiaketetatoak izan, zein kapital higikaitz, funts, ibilgailu, tresna edo ondarezko beste gai batzuetakoak izan, laguntza ukatzea edo iraungitzea ekar dezake.

2.– Halaber, aitortu gabeko ondarezko gaiak izateak edo kanpotik ikusita baliabide ekonomikorik badagoela adierazten dituzten itxurak agertzen badituzte, irabazien iturriak ezkutatu egin direla ulertaraziko dute.

3.– Aurreko idazatietan aipatu den ezkutatze joko hori egon dela erakutsi ahal izango du Administrazioak edozein froga agiri erabiliz, eta batez ere edozein Administrazio Publikoren eskutan dauden datuez baliatuz.

*21. atala.*– 19. atalean xedatutakoa horrela izan arren, atal bereko c) idazatian ohartemandakoa denean laguntza iraungitzeko arrazoia, laguntzarako eskubidea galdu duela aitortu aurretik, interesatuari galdakizuna egingo zaio bere gain hartu dituen iharduerak onar ditzan edo horiek egitera itzul dadin, edo gizarteratzeko dagokion planean ohartemandako neurriak bete ditzan; horretarako behar duen epe egokia emango zaio eta argi utziko zaio zelako ondorioak ekar ditzakeen berak hartutako jarreran jarraitzeak.

*22. atala.*– 1.– Elkarrekin ezkontide bezala bizi izateari benetan utzi zaiola agertu dadin kasuetan, interesatuak, Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarrera eman aurretik, ezkontideen arteko elikagaien eskubidea agertuko beharko du indarrean dagoen legedian xedatutakoarekin bat etorriz; artean, eskabidea egiteko garaian legokiokeen laguntzaren emakida behin-behinekoa izango da.

2.– Era berean, Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarreraren behin-behineko emakida aginduko zaio interesatuari, ezkontzaren baliogabetze, banaketa edo dibortzio prozesuetan sartuta badago.

3.– Aurreko bi idazatietan ohartemandako balizko kasuetan, dagozkien pentsio kopuruak behin epaileak finkatu eta gero, kontuan hartuko da horien kopurua, bai laguntzaren zenbatekoa finkatzeko, emakida behinbetikoa baldin bada, eta bai hori ematea bidezko den edo ez erabakitzeko.

*23. atala.*– Ezkontza baliogabetze, banaketa edo dibortzio prozesuak amaitu ondoren sortutako eskubide ekonomikoak sor bazaizkio eskabidea egiten duenari, eskabidea aurkeztu aurretik edo batera, eskubideok epailaritza indarrez gauzatu daitezela eskatu beharko du; artean, behin-behinean ordainduko da laguntza. Kasu honetan, esandako pentsio horiek gauzatu eta gero, lortu duen kopuruaren zenbateko berdina itzultzera behartuta geldituko da interesatua, baina gehienezko topea, jasotzen duen Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarreraren muga izango du; hala ere, betebehar hau ordaintzeko epea luzatzeko akordioa har daiteke, onuradunarengan gerta daitezen inguruabar ekonomikoen arabera.

*24. atala.*– Foru Aldundiek, maiatzaren 3ko 2/1990 Legean xedatutakoarekin bat etorriz eta aurreko ataletan ohartemandakoa betetzeko asmoz, Udalen bidez interesatuen eskura jarriko dute horiek dituzten eskubideei buruzko informazioa eta eskubideok gauzatzeko beharrezko diren izapideak argituko.

ajena, en pensiones, o en el ejercicio de profesiones liberales, en explotaciones agropecuarias, industriales o comerciales, como en capital inmobiliario, fincas, vehículos, aparatos u otros elementos patrimoniales, podrá dar lugar a la denegación o extinción de la prestación.

2.– Asimismo, la tenencia de elementos patrimoniales no declarados o la apariencia por signos externos que denoten la existencia de medios económicos, podrá entenderse igualmente como ocultación de fuentes de renta.

3.– La Administración podrá demostrar que se da la ocultación a que se refieren los apartados anteriores por cualquier medio de prueba, y en particular mediante los datos que obren en poder de cualquier Administración Pública.

*Artículo 21.*– No obstante lo dispuesto en el artículo 19 y en el supuesto que la causa de extinción fuera la prevista en el apartado c) del mismo, con carácter previo a la declaración de pérdida del derecho a la prestación se podrá requerir al interesado para que acepte o se reincorpore a las actividades a las que se hubiera comprometido, u observe las medidas previstas en el correspondiente plan de inserción, otorgándole para ello el pertinente plazo y advirtiéndole sobre las consecuencias a que podría dar lugar de persistir su actitud.

*Artículo 22.*– 1.– En los casos en los que se constate el cese efectivo de la convivencia conyugal, el interesado con carácter previo a la concesión del Ingreso Mínimo de Inserción deberá hacer valer el derecho de alimentos entre cónyuges de conformidad con lo dispuesto en la legislación vigente, precediéndose mientras tanto a la concesión con carácter provisional de la prestación que pudiera corresponderle al momento de la solicitud.

2.– Igualmente, se procederá a la concesión provisional del Ingreso Mínimo de Inserción en el supuesto que el interesado estuviera incurso en procesos de nulidad, separación o divorcio.

3.– En los supuestos previstos en los dos párrafos anteriores, una vez que judicialmente se establezca la cuantía de las pensiones correspondientes, el importe de las mismas se tendrá en cuenta para fijar la prestación caso de su concesión definitiva, o para determinar la procedencia de la misma.

*Artículo 23.*– Si el solicitante fuera acreedor de derechos de carácter económico derivados de procesos finalizados de nulidad, separación o divorcio, previa o simultáneamente a la presentación de la solicitud deberá instar la ejecución judicial de los mismos, precediéndose mientras tanto al abono provisional de la prestación. En este caso, una vez que se hayan hecho efectivas dichas pensiones, el interesado quedará obligado a devolver una cuantía igual a la obtenida hasta el límite del Ingreso Mínimo de Inserción que viniese percibiendo, si bien podrá acordarse el pago aplazado de esta obligación en función de las circunstancias económicas concurrentes en el beneficiario.

*Artículo 24.*– Las Diputaciones Forales, de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 2/1990, de 3 de mayo, y con el objeto de dar cumplimiento a lo previsto en los artículos anteriores, pondrán a disposición de los interesados, a través de los Ayuntamientos, la información respecto de los derechos que les asistan y sobre los trámites necesarios para hacerlos efectivos.

V. ATALBURUA

JARDUNBIDEA

*25. atala.*– 1.– Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarrera onartzeko, interesatuak aurrez eskabidea egin beharko du. Interesatuak egoitza duen udalerriko Udalean aurkeztu beharko du eskabide hori.

2.– Eskabidearekin batera, 3. atalean ezarritako beharkizunak betetzen direla ziurtatzeko beharrezko agiriak bidaliko dira, eta nolanahi ere hauek:

– Eskatzailearen Nortasun Agiri Nazionalaren eta Familiako Liburuaren fotokopiak. Nortasun Agiri Nazionalik ezean pasaportea edo beste agiri baliokide bat aurkeztuko da.

– Familiako beste kide guztien Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopiak, ateratzera behartuta badaude.

– Familiako kide guztien eskuarte eta dirusarrerak egiaztatzeko ziurtagiriak eta agiriak, eta horrela bada Norbanakoen Urteko Izabazien Zergaren azken aitorpenaren kopia bat.

– Familiako kideei dagokien erroldaren ziurtagira.

– Familiako ondareari buruzko zinpeko aitorpena.

– Udalak beharretsi eta espedientea osatzeko beharrezko den beste edozein datu edo agiri.

3.– Udalak zuzenean emango du eskatzailearen egoitzaren ziurtagiria eta, horrela denean, familiako kide guztiak elkarrekin bizi direla egiaziatuko du.

*26. atala.*– Udalak espedientea osatu eta gero, Foru Aldundiari bidaliko dio erabakia har dezan. Espedientean aurkeztutako datuak erkatu ahal izango ditu Aldundiak eta egoki erizten dituen frogak egin, beste instituzio edo erakunde publiko eta pribatuei beharrezko izan daitezen datuak eta txostenak eskatuz.

*27. atala.*– Onuradunaren aldetik, Legean eta Arautegi honetan (Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarrerari buruzko Legearen 20. atala), ezarritako beharkizunak bete direla ziurtatzeko ezinbesteko diren datuak eta txostenak baino ez dira izango aurreko atalean aipatu direnak.

Beti ere, eskuduntza duten erakundeek espedienteak izapidatzean lortu dituzten datuen isilpekotasuna bermatuta gelditzen da (Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarrerari buruzko Legearen 20. atala).

*28. atala.*– 1.– Maiatzaren 3ko 2/1990 Legea eta Arautegi hau ezartzeko instruitu daitezen espedienteen izapideak egiterakoan Administrazioak izango duen iharduera, Administrazioaren Jardunbideari buruzko Legeari jarraituz, ekonomia, azkartasuna, eraginkortasuna eta interesatuei entzuteko manuak jarraituz burutuko da.

2.– Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarrera eman, aldatu, eten, iraungi edo uka ditzaten akordioen aurka, indarrean dagoen legerian ohartemandako administrazioarekiko eta epaileen aurreko errekurtsoak tartejarri ahal izago dira (Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarrerari buruzko Legearen 21. atala).

*29. atala.*– Legean eta Arautegian denboraldi batean laguntza ordaindu gabe uzteko ohartemanda dauden kasuek, onuradunak, bai zuzenean, bai bere Udalaren bidez, Foru Aldundiaren jakinaren gainean jarri ditzan

CAPITULO V

PROCEDIMIENTO

*Artículo 25.*– 1.– El reconocimiento del Ingreso Mínimo de Inserción se realizara previa solicitud del interesado. Dicha solicitud deberá presentarse ante el Ayuntamiento del municipio de residencia del mismo.

2.– A la solicitud se acompañarán los documentos necesarios para justificar el cumplimiento de los requisitos establecidos en el artículo 3 y en todo caso:

– Fotocopia del Documento Nacional de Identidad del solicitante y del Libro de Familia correspondiente. A falta de Documento Nacional de Identidad se presentará pasaporte o documento similar.

– Fotocopias del Documento Nacional de Identidad de los demás miembros del hogar obligados a obtenerlo.

– Certificados y documentos acreditativos de los recursos e ingresos de todos los miembros del hogar, y en su caso copia de la última declaración del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

– Certificado de empadronamiento correspondiente a los miembros del hogar.

– Declaración jurada sobre el patrimonio del hogar.

– Cualesquiera otros datos o documentos, que sean requeridos por el Ayuntamiento, y que sean necesarios para completar el expediente.

3.– El Ayuntamiento, directamente, expedirá el certificado de residencia del solicitante y, en su caso, de convivencia de todos los miembros del hogar.

*Artículo 26.*– Una vez completado el expediente por el Ayuntamiento, se remitirá a la Diputación Foral para que dicte resolución. Esta podrá cotejar los datos aportados en el expediente, y realizar las comprobaciones que estime pertinentes pudiendo recabar cuantos datos e informes sean necesarios a otras instituciones o entidades públicas y privadas.

*Artículo 27.*– Los datos e informes a los que se alude en el artículo anterior se limitarán a los que resulten imprescindibles para la comprobación del cumplimiento, por parte del beneficiario, de los requisitos establecidos en la Ley y en este reglamento (Artículo 20 de la Ley del Ingreso Mínimo de Inserción).

En todo caso, se garantiza la confidencialidad de los datos obtenidos en la tramitación de los expedientes por parte de los organismos competentes (Artículo 20 de la Ley del Ingreso Mínimo de Inserción).

*Artículo 28.*– 1.– La actuación administrativa en la tramitación de los expedientes instruidos en aplicación de la Ley 2/1990, de 3 de mayo y del presente Reglamento se desarrollará, de acuerdo con la legislación de procedimiento administrativo, con arreglo a los principios de economía, celeridad, eficacia y audiencia de los interesados.

2.– Contra los acuerdos que concedan, modifiquen, suspendan, extingan o denieguen el Ingreso Mínimo de Inserción podrán interponerse los correspondientes recursos administrativos y jurisdiccionales previstos en la legislación vigente (Artículo 21 de la Ley del Ingreso Mínimo de Inserción).

*Artículo 29.*– Los supuestos de suspensión temporal del abono de la prestación previstos en la Ley y en el Reglamento operarán con carácter automático a partir de la fecha en la cual el beneficiario lo ponga en cono-

egunean bertan hartuko dute indarra. Onuradunaren erruz garai egokian ematen ez bada inguruabar horien berri, interesatua 19. ataleko e) idazatian ohartemandako iraungipen auzian sartuta dagoela ulertuko da.

*30. atala.*– 1.– Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarrera iraungitzeko prozedura 19. atalean ohartemandako arrazoiengatik hasten bada, b) idazatian izan ezik, espedientea zabaldu zaiola eta hori oinarritzen duten arrazoiak zeintzuk diren jakinaraziko zaio onuradurani, bidezko erizten dituen alegazioak aurkez ditzan. Iraungipen jardunbidea hastearekin batera, baitezpadan laguntza etetzeko erabakia har daiteke, etenaldi horren berri interesatuari emanez.

2.– Iraungipen jardunbideen izapideak egitean honakoak hartuko dira kontuan iraungipena bidezko den edo ez erabakitzeko: larritasuna, intentzioa, sortutako kalte ekonomikoak, interesatuak erizpideak izateko duen gaitasuna eta arazoaren inguruan gerta daitezen beste gorabeherak.

3.– Administrazioaren Jardunbideari buruzko Legearekin bat etorriz, iraungipen prozedura bat amaitzen duen erabakiak beti ere arrazoiak eman beharko ditu.

4.– Legean eta Arautegi honetan ohartemandako kasuetan, behar ez ziren moduan jasotako kopuruak itzultzeko betebeharra deklaratuko du esandako Erabaki horrek. Aipatu kopuruok zuzenbide publikoko dirusarreratzat joko dira.

*31. atala.*– 1.– 19. ataleko a), b), d) eta f) idazatietan ohartemandako kasuetan laguntza jasotzeko eskubidea iraungitzen denean, automatiko hartuko du indarra.

2.– 19. ataleko c) eta e) idazatietan ohartemandako iraungipena, dagokion erabaki administratiboan zehatz dadin egunetik izango du indarra.

*32. atala.*– Interesatuak laguntzaren hilerokoa jasotzeko duen eskubidea eta, horrela bada, behin-behinean edo behar ez den moduan jasotako kopuruak itzultzeko betebeharra indarrik gabe geldituko dira, Euskal Autonomi Elkarteko Ogasuntza Nagusiaren eskubideei eta betebeharrei ezartzen zaien arautegian ohartemandakoaren arabera.

VI. ATALBURUA

FINANTZAKETA

*33. atala.*– Euskal Autonomi Elkarteko Aurrekontu orokorretan horretarako izendatu daitezen dirukopuruen pentzutan finantzatuko da Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarrera.

*34. atala.*– Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarreraren ordainketei aurre egiteko beharrezko kopuruak bermatuko dizkie Foru Aldundiei Eusko Jaurlaritzak hileroko trasferentzien bidez, emakidari buruzko erabakien arabera eta honako jardunbidearekin bat etorriz:

a) Hileko lehenengo hamabostaldian, aurreko hilean onartutako eskabideei dagozkien agiriak bidaliko dizkiote Foru Aldundiek Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio Nagusiko Lan eta Gizarte Segurantza Sailari; agiriekin batera gastuaren kalkulua eta horren aldizkotasuna azalduko dira, ordainketa egiteko egunaren arabera. Nolanahi ere, emakidei buruzko erabakien kopiak bidaliko dira.

cimiento de la Diputación Foral, bien directamente, bien a través del correspondiente Ayuntamiento. Si por causa imputable al beneficiario no se hubieran comunicado dichas circunstancias en el momento oportuno, se le considerara incurso en la causa de extinción prevista en el apartado e) del artículo 19.

*Artículo 30.*– 1.– Iniciado un procedimiento de extinción del Ingreso Mínimo de Inserción por las causas previstas en el artículo 19, salvo en el supuesto del apartado b), se comunicará al beneficiario la incoación del mismo, así como las causas que lo fundamentan, al efecto de que puedan formularse por parte de éste las alegaciones que estime pertinentes. Junto con la incoación del procedimiento de extinción podrá acordarse la suspensión cautelar de la prestación, notificándose dicha suspensión al interesado.

2.– En la tramitación de los procedimientos de extinción se tendrán en cuenta, en su caso, la gravedad, intencionalidad, perjuicios económicos producidos, capacidad de discernimiento del interesado y demás circunstancias concurrentes, a fin de determinar la procedencia o no de la extinción.

3.– De acuerdo con la legislación de procedimiento administrativo la resolución que ponga fin a un procedimiento de extinción deberá ser en todo caso motivada.

4.– En los supuestos previstos en la Ley y en el presente Reglamento, dicha Resolución declarará la obligación de reintegrar las cantidades indebidamente percibidas. Las citadas cantidades tendrán la consideración de ingresos de derecho público.

*Artículo 31.*– 1.– La extinción del derecho a la prestación en los supuestos previstos en los apartados a), b), d) y f) del artículo 19 tendrá carácter automático.

2.– La extinción prevista en los apartados c) y e) del artículo 19 tendrá lugar a partir de la fecha que se determine en la pertinente resolución administrativa.

*Artículo 32.*– El derecho a la percepción de cada mensualidad de la prestación por el interesado y en su caso la obligación de revertir las cantidades recibidas con carácter provisional o indebidamente percibidas prescribirán de conformidad con lo previsto en la normativa aplicable a los derechos y obligaciones de la Hacienda General del País Vasco.

CAPITULO VI

FINANCIACION

*Artículo 33.*– El Ingreso Mínimo de Inserción se financiará con cargo a las correspondientes asignaciones de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

*Artículo 34.*– El Gobierno Vasco garantizará a las Diputaciones Forales las cantidades precisas para hacer frente al pago del Ingreso Mínimo de Inserción mediante transferencias mensuales en base a las resoluciones de concesión y de conformidad con el siguiente procedimiento:

a) Las Diputaciones Forales suministrarán, dentro de la primera quincena del mes natural, al Departamento de Trabajo y Seguridad Social de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, la documentación correspondiente a las solicitudes concedidas en el mes inmediatamente anterior, con el correspondiente cálculo de gasto y periodificación del mismo, atendiendo a la fecha de devengo co-

b) Halaber, aurreko atalean ohartemandako epe barruan eta hileroko trasferentziak egiteko xedez, Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarreraren onuradunen egoera-zerrenda bidali beharko dute Foru Aldundiek, bertan onuradunen zerrenda eta hauei dagozkien hilerokoak bilduko direlarik; laguntzen kopuruetan izandako aldaketak agertu beharko dira beti ere, baita laguntzak eten edo iraungi diren kasuak ere.

c) Aurreko idazatietan ohartemandako agiriak jaso eta bete ondoren, Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio Nagusiak, hilaren bigarren hamabostaldian, Foru Aldundien esku jarriko ditu hilari dagozkion ordainketak egiteko beharrezko diren diru kopuruak.

*35. atala.–* Legean ohartemandako jarraipen eta ebaluaketa eginkizunak Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio Nagusiko Lan eta Gizarte Segurantza Sailari errazteko, hilero bidali beharko dituzte Foru Aldundiek Dirusarreraren ukapen, aldaketa, etenaldi edo iraungipen erabakien kopiak, baita aurreko hilean onuradunei ordaindutako hilerokoen ordain agirien kopiak ere. Era berean, Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarrera garatzean eta burutzean erabil daitezen agiri eta informazio guztiak erantsiko dira, beti ere, datu horien ustiaketa estatistikoa egitea ahalbideratuz.

*36. atala.–* Trasferitutako kopuruak Dirusarrera ordaintzeko erabiliko ez liratekeen kasuetan edo, Legean eta Arautegi honetan ohartemandako arrazoiak direla medio onuradunek kopururen batzuk itzultzeagatik, Foru Aldundietan hondarrak egongo balira, Euskal Autonomi Elkarteko Ogasuntza Nagusiari itzuli beharko dizkiote Foru Erakundeek, abenduaren 20ko 31/1983 Legean ohartemandako jardunbideen arabera.

VII. ATALBURUA

GIZARTERATZEKO IHARDUERAK

*37. atala.–* Pobreziaren aurkako Osoko Planeko Batzorde Kudeatzaileak eta abuztuaren 31ko 200/1989 Dekretuan ohartemandako Sail desberdinen arteko Batzordeak planteiatu dituzten neurrietan oinarrituta Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio Nagusiak Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren bidez taiutuko ditu Gizarteratzeko Egitarauak. Eta, batez ere, gizarteko zerbitzuetan, etxebizitzan, hezkuntzan, heziketan, enpleguan, osasunketan eta orokorrean bizitza mailarekin zerikusia duten alderdietan izan beharko dute beren eragina.

Egitarauok honakoak finkatuko dituzte:

a) Bete beharreko helburuak.

b) Egitaruak ezartzeko tresnak, bereziki erakundeen arteko eginkizunen banaketa aipatuz.

c) Egitarauak ezartzeko beharrezko diren lankidetza mekanismoak.

*38. atala.–* Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarreraren onuradunei ezar dakizkiokeen gizarteratzeko iharduerak burutzea ahalbideratzeko beharrezko bitarte-

rrespondiente. En todo caso, se remitirá copia de las resoluciones de concesión.

b) Asimismo, dentro del plazo previsto en el apartado anterior y con el fin de proceder a la transferencia mensual, las Diputaciones Forales deberán remitir un estado de situación de los beneficiarios del Ingreso Mínimo de Inserción, que comprenderá un listado de los mismos, junto con las mensualidades que les correspondan, debiendo reflejarse en todo caso las modificaciones que hubiera en la cuantía de la prestación, así como los casos de suspensión o extinción de la misma.

c) Cumplimentada la recepción de la documentación prevista en los apartados anteriores, la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en la segunda quincena del mes natural, pondrá a disposición de las Diputaciones Forales las cantidades precisas para atender al pago mensual correspondiente.

*Artículo 35.–* Con el objeto de facilitar las funciones de seguimiento y evaluación del Departamento de Trabajo y Seguridad Social de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco previstas en la Ley, las Diputaciones Forales deberán remitir con carácter mensual copia de las resoluciones de denegación, modificación, suspensión o extinción del ingreso, así como la copia de los documentos de pago de las mensualidades satisfechas a los beneficiarios en el mes anterior. Igualmente, adjuntarán toda aquella documentación e información relativa al desarrollo y ejecución del Ingreso Mínimo de Inserción, debiendo posibilitar, en todo caso, la explotación estadística de dichos datos.

*Artículo 36.–* En los supuestos que las cantidades transferidas no llegaran a destinarse al pago del ingreso, o existieran remanentes en las Diputaciones Forales resultantes de la reversión de cantidades de los beneficiarios por las causas previstas en la Ley y en el presente Reglamento, los Organos Forales deberán reintegrar las mismas a la Hacienda General del País Vasco de conformidad con los procedimientos previstos en la Ley 31/1983, de 20 de diciembre.

CAPITULO VII

ACTIVIDADES PARA LA INSERCION SOCIAL

*Artículo 37.–* En base a las medidas planteadas por la Comisión Gestora del Plan de Lucha contra la Pobreza y la Comisión Interdepartamental prevista en el Decreto 200/1989, de 31 de agosto la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, a través del Departamento de Trabajo y Seguridad Social, diseñará los Programas de Inserción Social, los cuales deberán incidir especialmente en aspectos relativos a servicios sociales, vivienda, educación, formación, empleo, sanidad y aquellos otros relacionados con la calidad de vida en general.

Estos Programas fijarán:

a) Los objetivos a cumplir.

b) Los instrumentos de aplicación de los mismos, con especial referencia a la distribución interinstitucional de funciones.

c) Los mecanismos de coordinación necesarios para su aplicación.

*Artículo 38.–* Las Administraciones Públicas Vascas articularán y coordinarán los medios necesarios para posibilitar la realización de las actividades de inserción

koak sailkatu eta elkar lanean jarriko dituzte Euskal Administrazio Publikoek.

*39. atala.*– Gizarteratzeko iharduerak zehazteko asmoz, honako hauek hortara zuzendutakoak direla ulertuko da:

a) Gizarteratzeko lagungarri diren ekintzak. Norbanakoek, gizarte eta familiako giroan, beren buruen garapen armoniotsua lor dezatela bermatzeko diren hezkuntza, osasuna eta elkarrekin bizi edo harremanetan jartzeko gaiak garatzera, indartzera eta finkatzera bideratutako ekintzak izango dira hauek.

b) Lan merkatura sartzeko gaituko duen hezkuntza edo laneko prestakuntzaren mailarik onena lortzeko jarreren, ohituren eta baliabideen garapena ahalbideratuko duten hezkuntza eta heziketako ekintzak.

c) Lan munduan sartzeko ekintzak; inoren konturako lanposturen batera iristea ahalbideratzeko edo norbere konturako beste lanbideren bat ahalbideratzeko.

*40. atala.*– 1.– Onuradunak gizartean sartzeko jardunbidea Gizarteratzeko Bakarkako Plan baten bidez zehaztuko da. Erizpide tekniko eta profesionalez egingo da plana. Ahal den neurrian onuradunek berek hartuko dute parte proiektua egiteko.

2.– Bakarkako Plana egiteko xedez, onuradunen eta beren familiako kideen gizarte eta familiako giroaren diagnosia egin beharko dute udaletako oinarrizko gizarte zerbitzuek; familiako kide guztien premia eta gabezi nagusiak zehaztuko ditu Plan horrek.

3.– Gizarte eta familiako giroaren diagnosian zehaztutako premia eta gabeziak horrela eska dezatenean, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek, bakarkako Plana egiteko, beste zerbitzu publiko eta pribatuetako zerbitzu batzuetara bideratu ahal izango dituzte onuradunak, egin beharreko ekintza berezien proposamena zehazteko asmoz.

4.– Bakarkako Planak, gizarte eta familiako egoeraren diagnosi horretan oinarritua izanik, lortu beharreko helburuak jaso beharko ditu, eta horiekin batera, erabiliko den metodoa, taldearekin harremanak izateko aldizkotasuna eta burutu beharreko ekintzen proposamena, hurrengo ataletan ohartemandako hitzarmenean egituratuko direlarik.

*41. atala.*– Dirusarreraren emakidari buruzko erabakian zehaztuko dira onuradun bakoitzak Gizarteratzeko Bakarkako Planaren barruan bete beharreko baldintzak. Hala ere, ordainezko zerbitzuak berei dagokien hitzarmenaren bidez egituratuko dira, baina inondik inora ez dute kontratu baliorik izango eta emakidarako baldintza legez sartuko dira erabakiaren beste puntu bat bezala.

*42. atala.*– 1.– Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarrera ematen denetik 3 hilabeteko epean gehienez ere, oinarrizko gizarte zerbitzuek onuraduna gizarteratzeko ekintzen hitzarmena egingo dute eta Bakarkako Planaren parte osagarria izango da. Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio Nagusiaren Lan eta Gizarte Segurantza Sailak homologaturiko eredua erabiliko da horretarako.

2.– Hitzarmen horretan zehaztuta utzi ahal izango dira, bai onuradunarentzat berarizko emaitza duten ekintzak, bai 39. ataleko a) idazatian ohartemandakoaren indarrez gizarte eta familiako giroan norbanakoaren garapen armoniotsua lortzeko bidea emango diotenak.

que se establezcan a los beneficiarios del Ingreso Mínimo de Inserción.

*Artículo 39.*– A efectos de definir las actividades de inserción, se entienden por tales aquellas que vayan dirigidas a:

a) Acciones de apoyo a la inserción, entendiendo éstas como las encaminadas al desarrollo, potenciación y asentamiento de los elementos educativos, sanitarios, de convivencia o relacionales, para garantizar un desarrollo armónico del individuo y en su entorno social y familiar.

b) Acciones educativas y formativas, que permitan el desarrollo de las actitudes, hábitos y recursos para conseguir un nivel óptimo, según cada caso, de formación educativa u ocupacional que le capacite para entrar en el mercado de trabajo.

c) Acciones para la inserción laboral, que posibiliten el acceso a un puesto de trabajo sea por cuenta ajena, o posibilitando otras formas de autoempleo.

*Artículo 40.*– 1.– El procedimiento para la integración de los beneficiarios será establecido mediante un Plan Individual de Inserción. El plan será elaborado con criterios técnicos y profesionales. Los beneficiarios participarán siempre que sea posible en la confección del proyecto.

2.– Con objeto de elaborar el Plan Individual, los servicios sociales de base de los Ayuntamientos deberán realizar un diagnóstico socio-familiar de los beneficiarios y de su hogar, el cual definirá las necesidades y carencias genéricas de todos los miembros del mismo.

3.– Cuando las necesidades y carencias definidas en el diagnóstico socio-familiar lo requieran, para la elaboración del Plan Individual los Servicios Sociales de Base podrán orientar a los beneficiarios a otros sistemas de servicios públicos y privados a los efectos de determinar la propuesta de acciones especificas a realizar.

4.– El Plan Individual, elaborado en base a dicho diagnóstico socio-familiar, deberá contener los objetivos a conseguir, el método a seguir, la periodicidad de la relación con el equipo y la propuesta de acciones a realizar, las cuales se articularán en el convenio previsto en los artículos siguientes.

*Artículo 41.*– En la resolución de concesión del Ingreso se establecerán las condiciones que deberá cumplir el beneficiario dentro del Plan Individual de Inserción, si bien en todo caso, las contraprestaciones se articularán mediante el correspondiente convenio, el cual en ningún caso tendrá naturaleza contractual, y que se integrará como parte de la resolución con el carácter de condiciones de la concesión.

*Artículo 42.*– 1.– En el plazo máximo de 3 meses desde la concesión del Ingreso Mínimo de Inserción, se procederá por parte de los servicios sociales de base a la elaboración, según modelo homologado por el Departamento de Trabajo y Seguridad Social de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, del convenio de acciones para la inserción del beneficiario, el cual formará parte integrante del Plan Individual.

2.– En dicho convenio podrán explicitarse tanto acciones específicas de resultado para el beneficiario, así como otras que en virtud de lo previsto en el apartado a) del artículo 39 permitan alcanzar el desarrollo armónico del individuo en su entorno social y familiar.

3.– Esandako hitzarmena egin ondoren, bakoitzaren Foru Aldundiari bidaliko zaio, honek onarpena eman eta onuradunak izenpetu dezan.

4.– Kasu guztietan, hitzarmenak egin ondoren, Gizarteratzeko Bakarkako Planaren beste agiri guztiekin batera, Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio Nagusiaren Lan eta Gizarte Segurantza Sailera bidaliko dira.

*43. atala.*– Gutxienez eskatuko diren ordainezko zerbitzuak hauek dira:

a) Enplegu bila dabilen moduan inskribatu beharko da Instituto Nacional de Empleo -INEM- delakoaren bulegoren batean.

b) Oinarrizko gizarte zerbitzuek planteiatzen badiote behintzat, enplegua bilatzeko berariazko iharduerak burutu beharko ditu.

c) Administrazio Publikoek edo erakunde pribatuek interesatuari zuzenean planteiaturiko hezkuntza, heziketa edo birziklai eta lanbide gaikuntzarako ikastaroak.

*44. atala.*– Ordainezko zerbitzuak betetzetik iare utzi ahal izango dira, oinarrizko udal gizarte zerbitzuaren arauzko txostenaren iritziz, onuradunak lanik egin ezin duten pertsonak direnean, gizartean eta lan munduan sartzeko benetako aukerarik gabekoak direnez. Kasu guztietan, eta hiru hilabete igaro aurretik, txosten hori Foru Aldundiei eraman beharko zaie, espedientean dauden txosten eta datuak ikusita, ebazpen egoki bat har dezaten.

*45. atala.*– Laguntza eman eta gero oinarrizko gizarte zerbitzuek nabarituko balute kasu batzuetan arazo pertsonalak edo sozialak gehitu egin direla eta onuradunak gizarteratzeko zailtasunak, eragozpenak edo trabak daudela, dagokion Foru Aldundiaren jakinaren gainean jarriko dute, berariazko egitarau bat zehazteko, baztertuta egoteko gehitu diren arrazoiak gainditu ahal izateko.

*46. atala.*– Gizarteratze prozesuaren jarraipen ekintzak oinarrizko gizarte zerbitzuek egingo dituzte. Ekintza batzuk horrela eska dezatenean, beste erakunde publiko edo pribatu batzuk egin ahal izango dute jarraipena, baina Bakarkako Planean jaso beharko da gorabehera hori.

*47. atala.*– Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio Nagusiaren Lan eta Gizarte Segurantza Sailak garatuko ditu lan munduan sartzea errazteko beharrezko ekintza bereziak, lanbidea eta prestakuntza lortzera zuzenduz eta bultzatuz. Helburu horrekin, eta Euskal Autonomi Elkartearen Aurrekontu Orokorretan horretarako jarritako dirulaguntzen egitarauen barnean, lankidetza hitzarmenak izenpetu ahal izango ditu beste administrazio batzurekin, erakunde publikoekin, enpresekin, enpresa eta sindikatuetako antolakuntzekin, gremioekin eta irabazte xederik gabeko erakundeekin.

*48. atala.*– 1.– Bi urte jarraian edo hiru urtez, jarraipenik gabe izanda, Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarreraren onuradun direnek gizarteratzeko berarizko hitzarmen bat izenpetu beharko dute, egoera kroniko horri aterabidea aurkitzeko.

2.– Betebehar horretatik salbuetsita daude 44. atalean aipatutako onuradunak.

3.– Una vez elaborado dicho convenio deberá remitirse a la Diputación Foral correspondiente para que ésta dé su aprobación al mismo y se proceda a la firma por parte del beneficiario.

4.– En todo caso, una vez cumplimentados los convenios junto con el resto del Plan Individual de Inserción se remitirán al Departamento de Trabajo y Seguridad Social de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

*Artículo 43.*– Con carácter mínimo se exigirán las siguientes contraprestaciones:

a) Inscripción como demandante de empleo en alguna de las correspondientes oficinas del Instituto Nacional de Empleo - INEM-.

b) Realización de actividades especificas de búsqueda de empleo planteadas, en su caso, por los servicios sociales de base.

c) Cursos de educación, formación o reciclaje y cualificación profesional planteados directamente al interesado por las Administraciones Publicas o por entidades privadas.

*Artículo 44.*– Podrán quedar excluidos del cumplimiento de las contraprestaciones aquellos beneficiarios que, a juicio del preceptivo informe del servicio social de base municipal, constituyan personas inactivas sin posibilidad real de inserción en la sociedad y en el marco laboral. En todo caso, y antes de tres meses, se deberá elevar dicho informe a las Diputaciones Forales para que adopten la decisión pertinente a la vista de los informes y datos que obren en el expediente.

*Artículo 45.*– En aquellos casos, en los cuales los servicios sociales de base una vez concedida la prestación detecten la existencia de problemas personales o sociales añadidos, susceptibles de dificultar, obstaculizar o impedir la inserción de los beneficiarios, lo pondrán en conocimiento de la Diputación Foral correspondiente a fin de delimitar un programa específico, que permita superar las causas sobrevenidas de marginación.

*Artículo 46.*– Las acciones de seguimiento de la inserción se realizarán sistemáticamente por los servicios sociales de base. Cuando determinadas acciones lo requieran, podrá realizarse el seguimiento por otros organismos públicos o de carácter privado debiéndose reflejar dicha circunstancia en el Plan Individual.

*Artículo 47.*– El Departamento de Trabajo y Seguridad Social de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco desarrollará las acciones especificas de orientación y motivación profesional y de formación, necesarias para facilitar la inserción laboral. A tal fin, y dentro de los programas subvencionales establecidos al efecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, podrá firmar convenios de colaboración con otras administraciones, entidades publicas, empresas, organizaciones empresariales y sindicales, gremios y entidades sin ánimo de lucro para conseguir dicho objetivo.

*Artículo 48.*– 1.– Los beneficiarios del Ingreso Mínimo de Inserción, que durante un período continuado de dos años o que, se beneficien, a lo largo de tres años alternativos, tendrán la obligación de firmar un convenio específico de inserción destinado a remediar la situación de cronificación.

2.– Quedan exceptuadas de ésta obligación los beneficiarios referidos en el artículo 44.

3.– Atal honetan ohartemandako gizarteratzeko hitzarmenaren proposamenak honako hauek jasoko ditu:

a) Egoeraren diagnosia, bereziki gizarte eta familia giroan sartzeko alderdiak, prestakuntza maila eta lan munduko aztura bilduko direlarik. Diagnosi horretan sartuko dira, halaber, laguntzaren hasieratik onuradunak hartutako aginduak zein mailatan burutu dituen ere.

b) Bien adostasunez erabakiko da eskuhartzeko proposamen zehatz bat, gizarteratzeko helburuak berariaz mugatuz.

c) Onuradunak eta Administrazioak, biok agintzen dituzten iharduerako baliabideak.

d) Hitzarmenean ohartemandako iharduera guztien egutegia.

*49. atala.*– Erizpideak bateratzeko asmoz eta Euskal Autonomi Elkarteko herritar guztiei gizarteratzeko maila berdina bermatzeko, Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio Nagusiaren Lan eta Gizarte Segurantza Sailak gizarteratzeko jardunbideari buruzko eskuliburu bat eta ordainezko zerbitzuen hitzarmenaren eredua egingo ditu, Pobreziaren aurkako Planaren Batzorde Kudeatzaileak, agindutako moduan, bere informea egingo dietelarik.

VIII. ATALBURUA

ERAKUNDEEN ANTOLAKETA

*50. atala.*– Euskal Autonomi Elkartean egonik, gizarteratzeko bideratu daitezkeen baliabide guztien koordinazioa indartu eta neurri bereziak taiutu eta martxan jarri ahal izateko, lan taldeak eratu ahal izango dira Administrazio Publikoen eta gizarteratze prozesuan arduratuta dauden instituzio, erakunde eta elkarteen artean topagune izateko, Gizarteratzeko Lurralde eta Eskualde Batzordeak izena hartuta.

*51. atala.*– Irabazte xederik gabeko elkarte pribatuek gizarteratzeko bideratutako egitaraua, azterlanak eta iharduerak egiten parte hartzea errazteko, lankidetza hitzarmenak izenpetu ahal izango ditu Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio Nagusiaren Lan eta Gizarte Segurantza Sailak esandako elkarte horiekin, baina aipatu Sailak aurrez homologatuak egon beharko dira. Edozelan ere, maiatzaren 20ko 6/1982 Legearen 7. atalean ohartemandako beharkizunak bete beharko dituzte aipatu elkarte pribatu horiek, baita gizarte zerbitzuetako lankide erakunde legez behar den moduan erregistratuta egon ere.

GEHIGARRIZKO XEDAPENAK

*Lehenengoa.*– Onuradunaren heriotza dela-eta laguntza iraungitzen den kasuetan, Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarreraren emakida familiako beste kide bati ematea onar daiteke, Legean eta Arautegi honetan ezarritako beharkizunak betetzen baditu.

*Bigarrena.*– Gizarteko Sorospidetza gaietan Foru Ihardutesailek eta Toki Korporazioek gara ditzaketen beste ekintza batzuren kaltetan izan gabe ulertu behar da Dekretu honetan ezarritakoa.

3.– La propuesta de convenio de inserción previsto en el presente artículo incluirá:

a) Un diagnóstico de situación, centrado fundamentalmente en los aspectos relativos a integración social y familiar, nivel formativo y experiencia laboral. Este diagnóstico incluirá igualmente una evaluación del nivel de ejecución de los compromisos contraídos por el beneficiario desde el inicio de la prestación.

b) Una propuesta específica de intervención, acordada con carácter mutuo, con una específica delimitación de los objetivos de inserción.

c) Los distintos medios de actuación a los que se comprometen mutuamente el beneficiario y la Administración.

d) El calendario de las diferentes actividades previstas en el convenio.

*Artículo 49.*– Con el fin de unificar criterios y garantizar un mismo nivel de inserción para todos los ciudadanos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, se procederá por el Departamento de Trabajo y Seguridad Social de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco a elaborar un manual de procedimiento sobre la inserción y el modelo de convenio de contraprestaciones, los cuales serán informados preceptivamente por la Comisión Gestora del Plan de Lucha contra la Pobreza.

CAPITULO VIII

DISPOSITIVO INSTITUCIONAL

*Artículo 50.*– Con objeto de potenciar la coordinación de todos los recursos existentes en la Comunidad Autónoma del País Vasco, que puedan destinarse a la inserción, y posibilitar el diseño y puesta en marcha de medidas especificas, podrán constituirse grupos de trabajo con carácter de foros de encuentro de las diferentes Administraciones Públicas, y de las instituciones, organismos y entidades privadas implicadas en la inserción, bajo la denominación de Comisiones Territoriales y Comarcales de Inserción.

*Artículo 51.*– A fin de facilitar la participación de entidades privadas sin ánimo de lucro en la de programas, estudios y actividades encaminadas a la inserción social, se podrán suscribir convenios de colaboración por parte del Departamento de Trabajo y Seguridad Social de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco con dichas entidades, previa homologación de las mismas por el citado Departamento. En todo caso dichas entidades privadas deberán cumplir los requisitos previstos en el artículo 7 de la Ley 6/1982, de 20 de mayo, así como estar debidamente registradas como entidades colaboradoras de los servicios sociales.

DISPOSICIONES ADICIONALES

*Primera.*– En los supuestos en los cuales se extinga la prestación por fallecimiento del beneficiario, se podrá acordar la concesión del Ingreso Mínimo de Inserción a otro miembro del hogar, siempre que reúna los requisitos establecidos en la Ley y el presente Reglamento.

*Segunda.*– Lo establecido en el presente Decreto, se entiende sin perjuicio de otras acciones que, en materia de Asistencia Social, puedan desarrollar los Organos Forales y las Corporaciones Locales.

ALDIBATERAKO XEDAPENA

Oinarrizko gizarte zerbitzuak antolatu gabe dituzten Euskal Autonomi Elkarteko Udaletan, gizarte zerbitzuei edo sorospidetzari buruzko eginkizunak aginduta dituzten zerbitzuek burutuko dituzte Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarreraren izapideak.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*– Dekretu hau garatzeko eta ezartzeko beharrazko izan daitezen Xedapenak emateko ahalmena ematen zaio Lan eta Gizarte Segurantza Sailburuari.

*Bigarrena.*– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean Dekretu hau.

Vitoria-Gasteiz, 1993ko otsailak 9.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Lan eta Gizarte Segurantza Sailburua,
PAULINO LUESMA CORREAS.

DISPOSICION TRANSITORIA

En aquellos Ayuntamientos de la Comunidad Autónoma del País Vasco que no hayan organizado los servicios sociales de base, la tramitación del Ingreso Mínimo de Inserción se efectuará por los servicios que tengan encomendadas las funciones sobre servicios sociales o asistencia social.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– Se faculta al Consejero de Trabajo y Seguridad Social para dictar cuantas Disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación del presente Decreto.

*Segunda.*– El presente Decreto entrara en vigor el día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 9 de febrero de 1993.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Trabajo y Seguridad Social,
PAULINO LUESMA CORREAS.

**653**

26/1993 DEKRETUA, otsailaren 9koa, Gizarteko Larrialdi Egoeretarako diru laguntzak ezartzen dituena.

Egungo gizarteak elkartasuna erakutsi behar die pobrezia, babesik eza eta bazterkeria jasatera behartuta dauden pertsonei. Administrazioari dagokio, hain zuzen ere, elkartasun horren antolaketa, eta egin ere, gizartean pertsonek horrelako zoria halabeharrez jasaten duteneko ideia arbuia dezan sena piztuz egin beharra dauka.

Gizarteko larrialdi egoerak konpontzeko dirulaguntza egitarauak eratzeko premia egungo errealitatea kontrastatze hutsetik sortzen da, gainean dugun ekonomi krisia eta langabezia larriagatik, une hauetan premia hori areagotu egin delarik.

1989an Pobreziaren Aurkako Osoko Plana jarri zen martxan, bere helburuetariko bat gizarteko larrialdi egoerei aurre egitea zelarik. Helburu hori zehaztearren, martxoaren 20ko 64/1989 eta ekainaren 26ko 178/1990 Dekretuak onartu ziren, horien indarraldia 1992ko abenduaren 31n amaitu zelarik.

Planarekin aurrera egitea erabaki ondoren, legezko luzapena egin beharra dago, Plan horren bigarren mailaren pentzutan emandako laguntzak legeztatzeko.

Horren ondorioz, Lan eta Gizarte Segurantza Sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1993ko otsailaren 9an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

**653**

DECRETO 26/1993, de 9 de febrero, por el que se establecen las Ayudas Económicas a Situaciones de Emergencia Social.

La sociedad moderna debe ser solidaria con las personas que se ven abocadas a situaciones de pobreza, desamparo y marginación. Corresponde a la Administración organizar esa solidaridad y hacerlo de forma tal que genere además una conciencia social que rechace la idea de que puedan existir personas abandonadas a su suerte.

La necesidad de programas de ayudas económicas destinadas a paliar situaciones de emergencia social nace, por tanto, de la simple contrastación de la realidad en que vivimos, y se ve acrecentada en estos momentos por la crisis económica y el alto nivel de paro que padecemos.

En el año 1989, se puso en marcha el Plan Integral de Lucha contra la Pobreza, entre cuyos objetivos se encontraba la atención a situaciones de emergencia social. Como concreción de dicho objetivo se aprobaron los Decretos 64/1989, de 20 de marzo y 178/1990, de 26 de junio, cuya vigencia finaliza a 31 de diciembre de 1992.

Una vez decidida la continuidad del Plan corresponde proceder a la prórroga legislativa necesaria para dar cobertura legal a las ayudas efectuadas con cargo al segundo nivel del mismo.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Trabajo y Seguridad Social, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión del día 9 de febrero de 1993,